

Bizigiro >

Katalanaren batasuna eraikiz

Etzi amaituko da, Perpinyan, aurtengo Correllengua. Katalanaren aldeko egitasmoa 120 herri ingurutik igaro da, eta 200 jarduera egin dituzte. Antolakuntza pozik dago



Gaztetxoak Herrialde Katalanen maparen puzzle bat egiten, Correllenguako ekitaldietako batean. KATALANAREN ALDEKO ERAKUNDEEN KOORDINAKUNDEA

2015-11-05 / Ainara Arratibel Gascon

120 herri ingurutan ekitaldiak egin ostean, etzi amaituko da, Perpinyan, katalanaren aldeko Correllengua lasterketa. «Hizkuntz murgiltzeak 30 urte bete dituen honetan, ez du zentzurik oraindik ere galdetzen egotea katalanak izan behar ote duen hizkuntz ofizial bakarra», adierazi du Correllenguako koordinatzaile Marc Prohomek. Galdera horri erantzunez, katalanaren «batasuna eta duintasuna» aldarrikatu du Pep Ribasek, Katalanaren Aldeko Erakundearen Koordinakundearen presidentea. «Espainiako estatuaren mehatxuei eta interesei egin behar

diegu aurre». Kataluniak duen egoera politikoa kontuan hartuta, azken urteetan lasterketak izandako «xarma eta esanahi berezia» berretsi dute, eta ohartarazi dute estatu propioa lortzeko bidean, katalanak «bizkarrezur eta giltzetako bat» izan behar duela. «Hizkuntza galtzen badugu, nazioa, herria, galtzen dugu», gogorarazi du Ribasek.

Correllenguak hemeretzi urte bete ditu aurten. 1996an egin zuten lehen aldiz, Korrikaren eredu hartuta. Baina Correllengua ez da lasterka bat. Jendeak ez du korrika egiten. Antz handiagoa du Korrika kulturalarekin. Aurtengoa uztailaren 4an abiatu zen, Bartzelonako Graziako pasealekutik. Hilabete hauetan, 200dik gora jarduera egin dituzte. Prohomek balorazio positiboa egin du: «Ekitaldi kopuruari begira, datuak aurreko aldikoen antzekoak dira. Baina jendearen inplikazioa handituz doa. Kataluniak duen aldi politikoa kontuan hartuta, aurten are gehiago». Antzera mintzatu da Ribas: «Uste dugu oso egitasmo eraginkorra dela hizkuntzaren normalizazioari begira. Oso errotua eta egonkortua dagoen egitasmoa da». Urtero saiatzen dira eremu berrietara iristen. Aurten, eskoletara ailegatzen ahalegindu dira. «Hizkuntz normalizazioari begira eskolak duen garrantzia berretsi eta ikusarazi nahi izan dugu. Izan ere, gure murgiltze ereduaren aurkako erasoak etengabeak izan dira. Sekula arazorik eta gatazkarik eragin ez duen zerbait, auzitan jarri du Madrilek, eraso egin dio. Gure murgiltze eredu dinamitatu nahi izan du. Hori onartezina da», salatu du Prohomek.

Hain zuzen ere, eskoletan egin dituzte aurtengo Correllenguan omendu duten sortzaileari eskainitako ekitaldietako asko. Ovidi Montllor poeta eta bakarlaria izan da aurtengo omendua. «Correllenguarekin ez dugu gure hizkuntzaren aldeko aldarrikapena egin nahi soilik, baizik eta baita gure hizkuntzaren alde lanean aritu diren sortzaileak ezagutarazi eta gogoratu ere. Ez bakarrik Kataluniakoak, baizik eta Herrialde Katalan guztietakoak». Montllor duela 20 urte hil zen, minbiziak jota, eta hala laburbildu du haren figura eta ekarpena Ribasek: «Valentziako katalan bat zen. Beti defendatu eta aldarrikatu zuen katalana. Poema mordoa idatzi zuen hizkuntzari buruz, eta oso pertsona ihardukitzailea zen gure herriak jasaten zituen erasoan aurrean. Gure nazio izaera sutuki defendatu zuen. Uste dugu merezitako omenaldia dela, eta bat datorrela egun dugun egoerarekin». Errezitalak, irakurraldiak eta liburu azterketak egin dituzte, besteak beste, hura gogoratzeko.

Horri lotuta, duela hiru urtetik hasitako subiranotasun prozesuak Correllenguan isla izan duela berretsi dute biek. «Hizkuntza funtsezko elementu bat da prozesu horretan. Hori dela eta, hasieran zuen jai kutsua apur bat alde batera utzi, eta aldarrikapen izaera hartu du. Lehen gehiago zen ekimen kultural bat. Baina Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatua baliogabetu zuenetik, hori aldatuz joan da». Orditik, Correllenguako ekitaldietara gero eta jende gehiago

joaten dela esan du Prohomek. «Gure herria independentzia, subiranotasun irrikaz dago, eta hizkuntzarekiko sentimendua ere areagotuz doa» Katalanak jasandako «eraso zentralistak» argiak direla gogorarazi du, eta hori salatzea ere badu helburu Correllenguak. Espainiako Hezkuntza Ministro ohi Jose Ignacio Wertek Kataluniako ikasleak espainiartu egin behar zirela esan zuela ekarri du gogora. «Erasoak etengabeak izan dira, hizkuntza eta kultura eraso egiteko alorrik errazenak baitira. Murgiltze ereduarekin amaitu nahi dute, eredu hori baita onena eta eraginkorrena kanpotik datorren jendeak gure hizkuntza eta kultura ikasteko», uste du Prohomek.

Subiranotasun prozesu horri Correllenguak egiten dion ekarpena zehaztea zaila dela nabarmen du Ribasek. «Baina egungo egoeran edozein ekarpen da garrantzitsua, eta prozesuan aurrera egiteko bidean indarrak batzeko balio du. Adibidez, Correllenguaren inguruan egiten diren mahai inguruak, kultur jarduerak eta abar oso garrantzitsuak dira». Izan ere, garbi dute hizkuntzak «bizkarrezurretako bat» izan behar duela prozesuan: «Prozesuaren oinarrietako bat da, katalanak guztion hizkuntza komuna izan behar duela; betiere, jende guztiaren erlijioarekiko, kulturarekiko eta hizkuntzarekiko errespetutik abiatuta». Correllegua ere oinarri horretatik abiatzen da. «Adierazpen kultural ireki bat da, kultura guztiei irekia dagoena. Izan ere, Katalunian adibidez, 200dik gora kultura eta hizkuntza daude ordezkaturak».

Kataluniak independentzia lortuta ere, Correllenguak jarraitu egin beharko duela berretsi du Prohomek. «Azken batean, katalanaren egoera ez da berdina Gironako herri batean edo Perpinyan. Errealistak izan behar dugu, eta herrialde bakoitzaren errealitatearekin bat datozen estrategiak jarri behar ditugu martxan». Bide horretan, independentziaren garrantziaz ohartarazi du Ribasek: «Independentziak ez du katalanaren etorkizuna salbatuko. Baina estatu tresna propioak emango dizkigu, katalanaren etorkizuna bermatzeko». Bat dator horrekin Prohom: «Behintzat, ez genuke estatu bat aurka edukiko, eta horrek asko lagunduko luke. Dena den, urrats erabakigarria herritarrek egin behar dute, eta katalana erabili. Horrek ekarriko du hizkuntzaren normalizazioa. Bestela, Andorran bezalako egoera batekin topatuko ginatke. Han, lege guztiak dira katalanaren aldekoak, baina ez da hitz egiten».

Izan ere, jende askok uste duenaren kontra, hainbat lekutan katalanaren egoera ez da ona. Bartzelona metropolitarraren egoera aipatu du Ribasek. «Estatistikek diote herritarren %90ek dakitela katalana, baina soilik %23k erabiltzen du. Hor dago arazoa, eta egoera okertuz joan daiteke». Kezka azaldu dute baita ere, Ipar Katalunian eta Valentzian hizkuntzak bizi duen egoerarekin.

Horri aurre egiteko Kataluniako Gobernuek dituen tresnak «oso ahulak»

11011 aurtu egitero katalanaren gubernuak gurek auziak «oso aurrak» direla uste du Ribasek. «Jendeari ikusarazi behar diogu egunerokoan katalana erabilgarria eta beharrezkoa dela. Izan ere, soilik beharrezkoa den hizkuntza batek egiten du aurrera. Espainiako estatuak ez du nahi izan katalana beharrezko hizkuntza bat izatea. Alderantziz, etxe mailan erabiltzea nahi izan du bakarrik. Hori alda daiteke Kataluniak estatu propio bat edukiz gero». Bide horretan, ez dute ezer espero PSCren, Ciudadansen eta PPren aldetik.

Azken ekitaldia, etzi

Correllenguaren amaiera ekitaldia etzi egingo dute Perpinyan. «Ekitaldi xumea izango da, baina berezia. Izan ere, han katalanaren egoera oso txarra da», Prohomen hitzetan. 7.000 bat pertsona biltzea espero dute. Han, Salvador Cardus soziologo, kazetari eta irakasleak aurtengo Correlleguarako idatzitako testua irakurriko dute. «Testuan katalanak bere autonomia berreskuratzeko beharra berresten da, eta katalanaren erabilera soziala aldarrikatu». Manifestazioa eta kontzertuak izango dira eguneko hitzordu nagusiak, beste hainbat jardueraren artean.

0 iruzkin

Berria

1 Saioa hasi ▾

♥ Recommend

↗ Partekatu

Berrienetik hasita ▾



Hasi eztabaida...

Izan zaitez lehena iruzkina argitaratzen.

✉ Harpidetu

🗨️ Gehitu Disqus zure webgunera

🔒 Pribatutasuna

Informazio osagarria

[Jaia bai, aldarrikapena gutxiago](#)

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.
Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172
Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus |
Publizitatea: publi@bidera.eu
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa | Pribatutasun politika |
Cookieak | Publizitatea
© Creative Commons lizentzia



berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

www.euskalherriko
plaza.com

Mauka

BADOK

HITZA



Hamaika
telebista

iragarkilaburrak.com



ALEA
KATALANEN BATASUNA